



KANPO GAIETARAKO ETA LANKIDETZARAKO MINISTERIOA

KANPO GAIETARAKO ETA LANKIDETZARAKO IDAZKARIORETZA IDAZKARITZA OROKOR TEKNIKOA

Erref.: JCS/SGT/INJU/ Espt.: 1619

Gaia: Tratatuaren Legearen Entzunaldi Izapidea

EUDEL Euskadiko Udalen Elkartean, Nazioarteko tratatuaren eta bestelako akordioaren Lege Aurreproiektuaren berri ematen duen ofizioa jaso genuen, 2013/07/03a baino lehen dagozkion oharak egiteko. Emandako epearen barruan aipatutako Aurreproiektua eta dagokion Memoria aztertu ondoren, ohar hauek helaraztea erabaki dugu:

OHARRAK

Lehena.- *“Estatuaren Kanpo Ekintza eta Zerbitzuari buruzko Legearen Aurreproiektuari” dagokionez, EUDELek aurreproiektuari aurkeztutako alegazioak.*

Honako Nazioarteko Tratatuaren eta Akordioaren Lege Proiektua hertsiki loturik dago Estatuaren Kanpo Ekintza eta Zerbitzuari buruzko Legearen Proiektuarekin, arrazoen azalpeneari bertan adierazten den bezalaxe. Aurreproiektua EUDELi, Euskadiko Udalen Elkarteari, igorri zitzaion joan den martxoan, eta, gaur egun, legegintzako izapidetze prozesuan dago.

Azken Lege Proiektu horri dagokionez, EUDELek alegazio idazkia igorri zuen 2013/03/26an. Horren arabera, eta berau nabarmen sinplifikatuz, *Tokiko Autonomiarako Europako Gutunaren* printzipioekiko eta subsidiarioritasun printzipioarekiko idazketa errespetuzkoagoa eskatzen zuen, hain zuzen ere, tokiko erakundeek ere atzerrian legearen barruan dauden jarduerak egiten jarrai dezaten, euren erantzukizunpean eta, betiere, euren herritarren onurarako eta euren gai publikoak antolatu eta kudeatzeko, herritarrei administrazio eraginkorra eta hurbilekoa eskainiz.

Zentzu horretan, EUDELeke kezka zuen Lege Proiektuak ez ote zituen gehiegizkoak eta kaltegarriak diren Tokiko Erakundeek jardueren gaineko kontrol administratiborako mekanismoak, izan ere, kontrol zorrotzak eta luzeegiak ezartzen ditu. Ondorioz, tokiko erakundeek gauza ditzaketen jarduera zehatzen edukia erabat hutsa izan daiteke, eta, horrekin batera, *Tokiko Autonomiarako Europako Gutunaren* 8. artikuluan araututako ekintza administratiboen proportzionaltasun printzipioa urratu.

Horregatik guztiagatik, lege proiektu bien arteko harremanaren eta loturaren ondorioz -Kanpoko Ekintza eta Nazioarteko Tratatuak-, eta berriro ez errepikatzearen, EUDELeke 2013/03/26an *Kanpoko Ekintzako Lege Proiektuari* buruz igorritako alegazioei berriro heltzen die, izan ere, bertan adierazten ziren argumentuak erabat ezar dakizkioke *Nazioarteko Tratatuaren eta Akordioaren Lege Proiektu* berri honi.

Hori esanda, eta idazki honen bitartez aurkeztutako alegazioei kalterik egin gabe, uste dugu komenigarria litzatekeela hurrengo oharrek egitea.

Lehenengoa.- Ezarritako kontrolei eta Ministerioei, bereziki Ekonomia eta Ogasun Ministerioari, txostenak igortzeko obligazioari buruz.

Legegileak "Nazioarteko Akordio Administratiboei" buruzko V. tituluan, eta, bereziki, 53.1. artikuluan, tokiko erakundeei aintzatetsitako eskumenei kalterik egin gabe, zehaztaper bat egin nahi zaie "Arautu gabeko Nazioarteko Akordioei". Izan ere, euren esku-hartze aukerak aintzat hartuz gero, mekanismo egokiak dira udalerriek euren kanpo jarduera gauza dezaten, organo, organismo, erakunde, administrazio eta Nazioarteko Zuzenbideko bestelako subjektuen antzeko izaerako pertsonifikazioekin asmo-adierazpenak adostuz edota eduki politiko, tekniko edo logistikoko jarduera-konpromisoak ezarri.

Arauzkoak ez diren Nazioarteko Akordio hauei dagokienez, legegileak aurreikusten du horiek sinatu aurretik Ogasun Ministerioari eta Herri-administrazioei (46.1. art.) igorri behar zaizkiela, ezarritako konpromisoak eta, hala badagokio, horietatik eratortzen diren beste batzuk betetzeko aurrekontu finantziario egokia eta nahikoa dagoela jakinarazteko

Ekonomia eta Ogasun Ministerioari derrigorrean igorri beharreko adiera hau ("beharko dute") Kanpoko Gaietarako Ministerioarekin erlazionatzeko legegileak (hari "bidali ahal izango zaizkio" txostenak) erabilitakoaren aurka doa, izan ere, azken adiera horrek askozaz arrazoizkoagoa dirudi ekintzaren nahimenezko esparrua aintzat hartzen bada. Hala, bada, izenpentzaileek ezarritakoaren izapidetzeari lotutakoa gailendu beharko litzateke, eta ez, aitzitik, Tratatu eta Akordio administratiboetan ezarritakoa, aldean autonomia gordetzen baitute.

Horregatik guztiagatik, Akordio mota hauek (bai Administratiboak bai Arauzkoak ez direnak) Ekonomia eta Ogasun Ministerioari igortzeko obligazioa murriztu egin beharko litzatekeela uste dugu, Tokiko Autonomiarako Europako Gutunean jasotako kontrol administratiboaren proportzionaltasun printzipioak kontuan hartuta, izan ere, autonomia eta barneko kontrolerako mekanismo nahikoak dituzte, esku-hartze eta kontrol ekonomikoari dagokienez, Akordio horiek aurrekontuetan izan ditzaketen inplikazioak bereizteko.

Are gehiago, eta, subsidiarioki, ezin daiteke bistaz galdu aurreikuspen zehatz hau, batez ere, euskal esparruan. Izan ere, ez dator bat gure ordenamendu juridiko bereziarekin, udalen finantza eta aurrekontu tutoretza lurralde historikoko foru erakundeei baitagokie.

Hausnarketa hori bera, halaber, Lege Proiektuaren Hirugarren eta Laugarren Xedapen Gehigarriei aplika diezaiekegu, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren ikuskaritza eta kontrola ezartzen baita bertan, Aurrekontu Egonkortasunerako 2/2012 Legeari jarraiki.

Borondatezko kontribuzio edo ekarpenei buruzko Laugarren Xedapen Gehigarriari dagokionez, bere benetako helmena ulertzen ez bada ere, Aurreproiekuan ezarritako kontrolerako mekanismoek ez dituzte inolaz ere errespetatzen Tokiko Autonomiarako Europako Gutunaren 8. artikuluko proportzionaltasun irizpideak, ezta ekintzak garatu eta betearazteko aurrekontu autonomiaren eta autoerantzukizunaren aldeko apustua egiten duen *Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren 23/1998 Legearen* 20. artikulua ere.

Amaitzeko, berriro diogu euskal erakundeen arkitektura eta beren lege-egitura subsidiarioki kontuan hartu beharko litzatekeela, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari dagokienez. Zentzu horretan, kontzeptu biak ziurtatzeko eskumenak Ekonomia eta Ogasun Ministerioari egokitu beharrean, udalen esku-hartze eta kontrolerako mekanismoei eurei egokituko litzaizkieke, eta, kasu orotan, lurralde historikoetako foru organoei.

Bilbon, 2013ko ekainaren 28an